

Osasun-asegurua zuen biztanleria % 1,6 igo zen 2010ean


Osasun-aseguruaren primen bolumena BPGaren ginetik igo zen

Euskal AEn jardunean ari ziren aseguru libreko entitateek (ALE) osasun-aseguruaren barruan aseguraturako 382.677 lagun izan zituzten 2010ean (% +1,6 2009. urtearekin alderatuta), eta kolektibo hori Euskal AEko % 17,5 zen Eustaten datuen arabera. Ingurune ekonomikoa negatiboa zen arren, osasun-aseguruari dagokionez aseguratu kopurua eta prima bolumena igo egin ziren.

Era berean, ALEek primengatiko 267 milioi fakturatu zituzten osasun-zerbitzuak emateari dagokionez, eta horren ondorioz, % 5,3ko igoera izan zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Euskal AEko BPGak 2010ean izandako % 1,9aren ginetik.

Nolanahi ere, aseguratu kopuruan izandako igoera hori (% 1,6) Estatu osoan izandako igoera baino txikiagoa da (% 4,2). Geografikoki, aseguraturako kolektiboa honela banatu zen: % 71,3 Bizkaian, % 18,1 Gipuzkoan eta % 10,6 Araban.

Grafikoa: Aseguratuen banaketa eta primen bolumena lurraldearen arabera, 2010



Iturria: Osasun Saila eta EUSTAT. Aseguru Libreko Estatistika (ALE)

Biztanleriari dagokionez, Bizkaia izan zen hiru lurraldeen artetik aseguraturako biztanleriaren proportzio handiena izan zuena biztanle bakoitzeko: % 23,5; ondoren, Araba (% 12,7) eta Gipuzkoa (% 9,9) zeuden.

EAEn Estatu osoko guztizko primen % 4,4 zegoen eta Euskal AEko BPGaren % 0,41, hazkunde-tasa (% 5,3) Espainiakoaren ginetik zegoen (% 4,5).

ASISTENTZIA MEDIKO-FARMAZEUTIKOKO ASEGURU LIBREKO ENTITATEAK 2010

Primen bolumenaren % 73,2 Bizkaian izan zen, % 17,4 Gipuzkoan eta % 9,4 Araban. Gipuzkoa izan zen hazkunde handiena lortu zuen lurraldea (% 6,4), ondoren Bizkaia (% 5,5) eta Araba (% 1,9) zeuden.

Osasun-aseguruaren adarra bereizten da kontzentrazio handia dagoelako. Primen bolumena aintzat hartzen badugu, lehenengo hiru entitateek % 81eko baterako merkatu-kuota lortu zuten 2010ean.

Aseguratu gehienek (% 90) osasun-asistentzia orokorreko estaldura zuen mediku-asegurua –lehen mailako asistentziako eta ospitale-asistentziako zerbitzuak estaltzen zituen– izan zuten kontratatuta; aitzitik, % 7,7k arreta espezifiko poliza aukeratu zuen (lehen mailako arretakoa, arreta espezializatukoa edo hortzetako asistentziakoa, esaterako).

1. taula: Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen bilakaera

	Euskal AE			Estatukoa	
	2010	2009	Δ % 10/09	2010	Δ % 10/09
ZORROAREN LABURPENA					
Primen zenbatekoa (mila €)	267.618	254.134	5,3	6.057.711	4,5
Aseguratu kopurua	382.677	376.544	1,6	9.651.069	4,2
Biztanleria aseguratu(%)	17,5	17,4	0,6		
ZORROAREN BANANTZE GEOGRAFIKOA (primen bolumena)					
Araba/Álava (mila €)	25.104	24.643	1,9		
Bizkaia (mila €)	195.990	185.779	5,5		
Gipuzkoa (mila €)	46.524	43.712	6,4		

Iturria: Euskal AE: Osasun Saila eta EUSTAT. Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika (ALE.)

Egoera: ICEA (Aseguru-entitateen eta pentsio-fondoaren arteko ikerketa kooperatiboa)

Ohar metodologikoa: estatistika honetan EAEn establezimenduren bat duten asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateei buruzko informazioa biltzen da.

2008ko datuei buruzko datuak aztertu dira, eta horren ondorioz, eguneratu egin dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre Fernández

Tel.: +34-945-01 75 34 Faxe: +34-945-01 75 01

[Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateei buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateei buruzko datu-bankua](#)